IRAGARPENA, Areku Arriagan industriarako urbanizagarri izango den «H» sektorea sortzeko arau subsidiarioen aldarazpen puntualari buruzkoa dena. 10849

UNIBERTSITATEEN KONTSEILUA

IRAGARPENA, Unibertsitateko irakasleen kidegoetako lanpostu hutsak betetzeko lehiaketak ebatziko dituzten batzordeak osatzen dituzten bokalak izendatzeko zozketak noiz egingo diren iragartzeko dena. 10849

ERMUKO NOTARITZA

EDIKTUA, judizioz kanpoko hipotekaren ihardunbidearen berri jakinarazteko dena. 10851

ANUNCIO relativo a la Modificacion Puntual de NN.SS. para la inclusion del Sector «H» Areku Arriaga de Suelo apto para Urbanizar Industrial. 10849

CONSEJO DE UNIVERSIDADES

ANUNCIO de la fecha de celebración de los sorteos para designar los vocales que integran las Comisiones que han de juzgar los concursos para la provisión de vacantes de los Cuerpos Docentes Universitarios. 10849

NOTARIA DE ERMUA

EDICTO de notificación de procedimiento hipotecario extrajudicial. 10851

# Xedapen Orokorrak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA EKONOMI ETA OGASUN SAILA

### 3235

323/1994 DEKRETUA, uztailaren 28koa, unibertsitateaz bestekoak diren Euskal Autonomi Elkarteko herri ikastetxeetako zuzendariak kontratatzeko ahalmena arautzen duena.

Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen 63.1 atalean unibertsitatekoaz besteko herri ikastetxeei leporatzen zaie beste organu batzuen agintepekoak ez diren obra, zerbitzu eta hornigaiak kontratatzeko ahalmena, arauetan xedatzen denaren arabera. Ikastxeetako zuzendariok alor honetan duten ihardute eremua zehaztea da dekretu honen helburua. Neurri horrekin, lege horretan ezarritako ekonomi eta finantza mailako autonomiari eta gehigarrizko xedapenetatik bigarrenean ezarritakoari eusten zaio, alde batetan behintzat.

Ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren eta Ekonomi eta Ogasun sailburuaren proposamenez, Administrazio Kontratazioko batzorde aholkuemalearen txostena ikusita, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1994ko uztailaren 28an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*Atal bakarra.–* Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legez ezarritako ekonomi eta finantza mailako autonomiaz baliatzen diren unibertsitatekoaz besteko Euskal Autonomi Elkarteko herri ikastetxeetako zuzendariek obrak kontratatu ahal izango dituzte Sailaren izenean. Obrok ikastetxean bertan

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTOS DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN Y DE ECONOMÍA Y HACIENDA

### 3235

DECRETO 323/1994, de 28 de julio, por el que se regulan las facultades de contratación de los directores de los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma Vasca.

El artículo 63.1 de la Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca, atribuye a los directores de los centros docentes públicos no universitarios la facultad de contratar todas las obras, servicios y suministros que no correspondan a la competencia de otros órganos, de acuerdo con lo que se determina reglamentariamente. Es objeto por tanto de este Decreto el determinar el concreto ámbito de actuación de los directores en esta materia, cumplimentando, siquiera parcialmente, tanto el principio de autonomía económico-financiera establecida por dicha Ley así como a lo establecido en su Disposición Adicional Segunda.

En su virtud, a propuesta de los Consejeros de Educación, Universidades e Investigación y de Economía y Hacienda, a la vista del informe de la Junta Asesora de Contratación Administrativa y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 28 de julio de 1994.

DISPONGO:

*Artículo único.–* Los directores de los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma que ejerzan la autonomía económico financiera establecida por la Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca, podrán contratar, en nombre del Departamento y para el propio centro, las obras de

egin beharko dira, eta konponketatxoak egite, zaharberritze edo iraun arazpen lanak burutzeko izango dira, beti ere azkar egitekoak izan eta ahalmena duen fakultatibo baten proiektu teknikorik behar ez badute; zerbitzuak eta hornigaiak ere kontratatu ahal izango dituzte. Guzti horien aurrekontua ezingo da izan, egundo, bi miloi (2.000.000) pezetatik gorakoa.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko ahalmena ematen zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari.

*Bigarrena.*– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 1994ko uztailak 28.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
FERNANDO BUESA BLANCO.

Ekonomi eta Ogasun sailburua,
JOSE LUIS LARREA JIMENEZ DE VICUÑA.

reparación menor, conservación o mantenimiento que demanden una pronta ejecución para la que no sea precisa un proyecto técnico elaborado por facultativo competente, los servicios y suministros, cuya cuantía, en todos los casos, no sea superior a dos millones (2.000.0000) de pesetas.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Se faculta al Consejero de Educación, Universidades e Investigación para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto.

*Segunda.*– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 28 de julio de 1994.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
FERNANDO BUESA BLANCO.

El Consejero de Economía y Hacienda,
JOSÉ LUIS LARREA JIMENEZ DE VICUÑA.

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

**3236**

324/1994 DEKRETUA, uztailaren 28koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egitura organikoa arautzeari buruzko Dekretua aldatzen duena.

Maiatzaren 15eko 133/1990 Dekretu bidez aldatutako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egitura organikoa arautzeari buruzko apirilaren 12ko 107/1988 Dekretuko gehigarrizko xedapenetatik laugarrenean agintzen denari jarraiki, Sailaren izenean konponketatxoak egite eta zaharberritze edo iraun arazpen obrak kontratatzeko ahalmena, baldin eta azkar gauzatu beharrekoak izan eta horien aurrekontua 1.500.000 PTAtik beherakoa bada, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren lurralde ordezkarien esku utziko da.

Ahalmen hori banatu zenetik sei urte joan dira. Aipatu neurri horretaz baliatzeak erraztu egin du obratxook egitea eta azkarrago eta eraginkorrago burutzeko bideak eskeini ditu. Ondorioz, bidezkoa da, hartutako bideari ekin asmoz, alde batetik, era horretako obretarako ematen den diruzenbatekoa eguneratzea berriro, jakinaren gainean egonik kontratatzeko ahalmena banatuta dagoela; eta bestetik, areagotu egin nahi da, Sailaren izenean, banaketa hori, zerbitzuen eta hornigaien alorrak ere hartuz.

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**3236**

DECRETO 324/1994, de 28 de julio, de modificación del Decreto por el que se regula la estructura orgánica del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

A tenor de la Disposición Adicional Cuarta del Decreto 107/1988, de 12 de abril, por el que se regula la estructura orgánica del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, modificada a su vez por el Decreto 133/1990, de 15 de mayo, la facultad de contratación, en nombre del Departamento, de obras de reparación menor, conservación o mantenimiento que demanden una pronta ejecución y cuya cuantía no sea superior a 1.500.000 pesetas, se desconcentra en los Delegados Territoriales del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

Transcurridos seis años desde que se produjo la desconcentración de la referida facultad, y observándose que la adopción de tal medida ha facilitado y permitido, además, una mayor eficacia y agilidad en la ejecución de las citadas obras menores, procede ahora no sólo actualizar de nuevo la cuantía de las obras de tal carácter, cuya facultad de contratación está desconcentrada, a fin de avanzar en la línea señalada, sino además extender el ámbito de la desconcentración a la facultad de contratación, en nombre del Departamento, de servicios y suministros.